

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3627

*597/2025 EBAZPENA, uztailaren 11koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Paloma Atela Urquijo andrea erizaintzako gainbegiralearen kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean - Barrualdeko Eskualdean.*

1051/2022 Ebazpenaren bidez, Paloma Atela Urquijo andrea erizaintzako gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean - Barrualdeko Eskualdean (2023ko otsailaren 17ko EHAA, 34. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Paloma Atela Urquijo andrea erizaintzako gainbegiralearen kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean - Barrualdeko Eskualdean, berak hala eskatuta.

Bigarrena.- Ebazpen honek 2025eko uztailaren 10eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.- Ebazpen hau EHAAn argitaratzea, eta interesdunari eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zuzendaritzari horren berri ematea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko uztailaren 11.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,  
ARATXU LOZANO OTERO.